| | **7. Egokitasuna (testu motarekiko)** | - Albiste testuaren ezaugarriak betetzen ditu: titulua, azpititulua, gorputza.<br>- Albistean 5 galderen erantzuna agertzen da: zer, nor, noiz, non eta zergatik.<br>- Testua hizkuntza-erregistro egokian idatzita dagoen arren, batzuetan hizkuntza ez da guztiz neutroa. | 0,5 |
| | **8. Egitura argia, informazioaren progresio egokia** | - Ideiak paragrafoka antolatzen ditu.<br>- Eskatutako testu motaren egitura errespetatzen du.<br>- Informazioaren garapena modu logikoan egiten du, kontraesanik gabe baina errepikapenak daude, "*giro ona*". | 0,5 |
| KOHESIOA | **9. Lotura, erreferentea mantenduz** | - Batzuetan erreferentea galtzen da, lokailu sinpleak erabiliz eta hitzen ordena ez da egokiena. | 0,5 |
| | **10.- Puntuazio-markak** | - Hiru koma akats ditu "*Orokorrean*(,) *lehenengo*…"; "*kasu honetan*(,) *bi bonboi*…". | 0,7 |
| **OSOTARA** | | | **6,7/10** |

## 4. adibidea:

### 1. Ideiak – Hasierako planteamendua:

Titulua → Pirinioetako V. Mikroipuin Lehiaketa
Azpititulua → Sari banaketa eta ospakizuna

Gorputza:

- Alkatea banatu zituen sariak, Nafarroako gobernua emandakoak
- 150€, 100€ eta 2 opari ziren sariak
-

### 2. Zirriborroa:

PIRINIOETAKO V. MIKROIPUIN LEHIAKETA
Sari banaketa eta ospakizuna.

Gaur, 2023ko maiatzaren 5a arratsaldeko 18:00etan Pirinioetako V. Mikroipuin Lehiaketaren sariak banatu dira. Horren ostean, ospakizuna egon da.

Lau sari egon dira, lehenengoarentzat 150€, bigarrenarentzat 100€ eta hirugarren eta laugarrenarentzat opari bana. Alkateak izan da sariak banatu dituena. Sarien irabazleak; Mikel Perez, Nerea Etxeto, Urtzi Iriarte eta Ane Etxeberria izan ziren. Irabazleak esan zitzaterean eta bakoitzari tokatzen zitzaion saria eman ziotenean, bakoitzak haren mikroipuina irakurri behar zuen.

Laurek haien mikroipuina altuan irakurtzea bukatu zutenean, ospakizuna hasi zen. Janaria mundu guztiarentzat prestatuta zegoen eta jendea jaten zuen bitartean kontzertuak zeuden. Kontsertu guztiak bukatzean herri kirolak prestatu zitzaten, aizkolaritza, tsingak... Herri kiroletan mundu guztia parte hartu al zuen. Arazo karri bat egon zen aizkolaritzan, mutiko bati egur zati bat begira sartu zitzaion, hospitalera eraman zuten eta festa jarraitu egin zen

Titularra

PIRINIOTAKO V. MIKROIPUIN LEHIAKETA

Azpititularra

Sari banaketa eta ospakizuna

Gaur, 2023ko maiatzak 5, Piriniotako V. Mikroipuin Lehiaketaren sariak banatu dira, arratsaldeko 18:00etan, Ariben. Sari banaketaren ostean ospakizun bat egon da.
Nafarroako Gobernuak sariak prestatu ditu eta alkateak izan da banatu dituenak. Lau sari egon dira; lehenengo saria irabazi duenarentzat 150€, bigarrenarentzat 100€ eta hirugarren eta laugarrenentzat opari bana zegoen. Sarien irabazleak aipatu zituztenean, haien saria hartzera joan behar ziren eta haien mikroipuina altuan irakurri behar zuten. Hauek izan dira sarien irabazleak: Mikel Perez, Nerea Etxeto, Urki Iriarte eta Ane Etxeberria.

Laurek haien mikroipuina irakurri ostean, ospakizuna hasi egin zen. Mundu guztiarentzako janaria zegoen, nahi zuenak hartu zezakeen. Baita hiru edo lau kontzertu zeuden. Kontzertu guztiak bukatu zirenean herri kirolak zeuden: aizkolaritza, txingak... Herri kiroletan mundu guztia parte hartu zezakeen. Momentu batean aizkolaritzan zeudenean mutiko bati egur zati bat begiran sartu zitzaion baina berehala hospitalera eraman eta pasatu zitzaion.
Ondoren festa jarraitu zuen eta gaueko 23:00etan bukatu egin zen

| 4. adibidea | | | |
|---|---|---|---|
| PLANGINTZA | **1. Zirriborroa** | - Ideiak antolatzeko prozeduraren bat erabiltzen du.<br>- Bi zatiak erabiltzen ditu.<br>- Behin betiko testuak zirriborroa hobetzen du. | 1 |
| ZUZENTASUNA | **2. Aurkezpena** | - Letra argiz idazten du, okertu gabe eta marjinak utziz.<br>- Testua paragrafotan egituratzen du.<br>- Oro har txukuntasuna nabari da. | 1 |
| | **3. Ortografia** | - Akats ortografiko bakarra: “*ozpakizuna/ospakizuna*”. | 0,8 |
| | **4. Zuzentasun gramatikala** | - Ez du akats morfosintaktikorik egiten.<br>- Komunztadura eta arau gramatikalak ongi betetzen ditu.<br>- Perpaus aberats batzuen erabilera.<br>- Akats gramatikal gutxi ditu: “*ospakizun bat egon* (izan) *da*”; “ *begira* (begian) *sartu zitzaion*” | 0,5 |
| EGOKITASUNA ETA KOHERENTZIA | **5. Eskatutako zereginarekin bat dator eta eskakizunak bete ditu.** | - Ikasleak eskatutako informazioa ematen du (albistearen helburua, nork banatu dituen sariak eta nor izan diren irabazleak).<br>- Albistea beste informazio bat gaineratuz garatu du: nola ospatu zen ospakizuna, zer gertatu zen, edo beste edozein gauza aipatuz garatzen du testua. | 1 |
| | **6. Hiztegiaren aberastasuna** | - Erabili duen hiztegia ez da pobrea baina gaztelaniazko kalkoren bat erabiltzen du<br>“*microipuina altuan* (ozen) *irakurri*…”<br>- Hizte apur bat errepikakorra da.<br>“*saria… saria… irabazi… irabazi*” | 0,5 |
| | **7. Egokitasuna (testu motarekiko)** | - Albiste testuaren ezaugarriak betetzen ditu: titulua, azpititulua, gorputza.<br>- Albistean 5 galderen erantzuna agertzen da: zer, nor, noiz, non eta zergatik.<br>- Testua hizkuntza-erregistro egokian idatzita dago, hartzaileari egokitua eta testuingurua kontuan izanda. Hizkuntza neutroa da eta lagunarteko adierazpenak baztertzen dira. | 1 |
| | **8. Egitura argia, informazioaren progresio egokia** | - Ideiak paragrafoka antolatzen ditu baina batzuetan ideia ezberdinak paragrafo beran sartu ditu .<br>- Eskatutako testu motaren egitura errespetatzen du.<br>- Informazioaren garapena modu logikoan egiten du, kontraesanik gabe baina errepikapenak daude. | 0,5 |
| KOHESIOA | **9. Lotura, erreferentea mantenduz** | - Testu antolatzaile eta lokailu egokiak erabiltzen ditu.<br>- Erreferentzia mekanismoak zuzen baliatzen ditu. | 1 |
| | **10.- Puntuazio-markak** | - Bi koma akats egin ditu: “*Sarien irabazleak aipatu dituztenean*(,) *haien saria*…”. | 0,8 |
| **OSOTARA** | | | **8,1/10** |

# <u>III. IRAKURKETA PROZESUAK</u>

## ITEMAREN ERANTZUNAREN MOTA ETA TESTU MOTAK

**Irakurketa prozesuak**: IZA, L. (2007) lanetik ateratako taula. *Irakurketa plana haur eta lehen hezkuntzako ikastetxeetan.* Eskolako liburutegiak. Blitz, liburutegiko sagua. Nafarroako Gobernua. *Or.17-22.*
https://www.educacion.navarra.es/documents/713364/714655/elplandelecturaeusk.pdf/3e8109e9-b065-4975-98c8-7fc6b7cd92dc

| Irakurketa prozesuak | Definizioa |
|---|---|
| **Informazioa aurkitzea eta eskuratzea** (testuko zati jakinei erreparatzea) | Testuan bertan ageriko informazioa lokalizatzea, hitz berak Erabiliz edo sinonimoak erabiliz. |
| **Interpretatzea eta integratzea**<br><br>(Testu barruko erlazioak ulertzea: testua osotara hartuta eta testuko zatien arteko erlazioa kontuan hartuta) | **Interpretatzea:** testua logikaz ulertzea. Honek informazioa erkatzea eta egiaztatzea, inferentziak egitea edo laguntza probak identifikatzea dakar. |
| | **Integratzea: ulermen orokorra:** testutik funtsezkoena ateratzea, testua bere osotasunean hartuta. (Ideien arteko hierarkia ezartzea; ideiarik orokorrena eta gehien gailentzen den ideia aukeratzea). |
| **Hausnartzea** (Testuaren kanpo-ezagutza erabiltzea) | **Edukiaren gaineko hausnarketa:** testuko baieztapenak ebaluatzea eta testuaz kanpotik dakigunarekin egiaztatzea, edukia kritikoki aztertu ahal izateko edo errealitate horren irudikapenaren iritzia izateko. |
| | **Formaren gaineko hausnarketa:** arlo morfosintaktikoan, lexiko-semantikoan eta testuzkoan, testuaren ezaugarri linguistikoak ebaluatzea. |

Ebaluazio diagnostikoaren esparru teorikoa ere kontsulta daiteke. Bigarren Hezkuntza. Or. **35-39 prozesu bakoitzean lan egiten duten eginkizunen adibideak eskaintzen dira:**
https://www.educacion.navarra.es/documents/57308/57722/Marcoteorico2.pdf/7e430de5-1b5b-485f-b26d-c7697ac29915

Idatzizko ekoizpena zuzendu eta ondoren lantzeko**, *Idatzizko testuak zuzentzeko orientabideak lana kontsultatzea gomendatzen da. Ebaluazio diagnostikoa. Bigarren Hezkuntza. Hezkuntzako Ikuskapen Koadernoak.* Nafarroako Gobernua. 2009.**

https://www.educacion.navarra.es/documents/713364/714655/competencia.pdf/b34fa63b-0072-42b8-8821-da44faa82021

- **Testuen sailkapena honako kontzeptu hauetan oinarritu da**: (2018ko PISA Irakurketarako Gaitasun Esparruan oinarritua)

  - Testu jarraiak edo testu etenak:
    - Jarraia: paragrafoetan antolatutako enuntziatuek osatzen dituztenak dira, puntuazio-arauak betetzen dituzte. Izenburuek eta edukiek, edo letra tamaina nahiz letra tipoaren formatu desberdinak erabiltzeak, testuaren antolaketa ezagutzen laguntzen dute. Testu-lokailuek informazio logiko garrantzitsua ematen dute.

    - Etena: beste modu batez antolatzen dira, beraz, bestelako irakurketa-ikuspegia eta irakurketa ez-linealeko estrategiak behar dituzte. Testua hainbat elementu grafikorekin nahasten dute eta informazioa hainbat modutan aurkezten dute. Testu etenaren adibideak: zerrendak, taulak, grafikoak, diagramak, iragarkiak, infografiak, programazioak, katalogoak, aurkibideak…
  - Testu motak: instrukzio, deskripzio, narrazio, azalpen, argudio eta transakzio-testua.
  - Testu-generoak.

- **Itemen sailkapena, eskatzen duten erantzun motaren arabera:** (Hezkuntza Ebaluaziorako Institutu Nazionalaren ebaluazioaren kontzeptu-esparruan oinarrituta)

  - Erantzun itxia: ikasleek eskainitako aukera bat baino gehiago hautatu behar dute, ideiak erlazionatu, baieztapen baten egiazkotasuna edo faltsutasuna ezarri, aukera jakin batzuk ordenatu eta abar.
  - Erantzun erdi-eraikia: lauki edo espazio bat edo batzuk hitz edo zifra batekin betetzea eskatzen dute, esaldi bat baino gehiago osatzea edo galderaren bati erantzun labur batekin erantzutea.
  - Erantzun irekikoa edo eraikia: ikasleek egitea eskatzen dute.

# IV. KOADERNOA SOLUZIOEKIN

## 1. testua. UGAZTUNENTZAT EZ ZEN ERRAZA IZAN TENTE JARTZEA




Ikertutako espezie modernoen (beltzez) eta desagertutakoen (grisez) arteko erlazio ebolutiboak.Arg. Peter Bishop

Ugaztunak narrastien gisara ibiltzetik tente egotera pasatzea trantsizio konplexua eta ez-uniformea izan zen, eta uste baino askoz beranduago gertatu zen. Ondorio horretara iritsi dira Harvard Unibertsitateko (AEB) bi ikertzaile, *Science Advances* aldizkarian argitaratu duten lan batean.

Narrastien jarrera etzanetik ugaztun modernoen jarrera tentera pasatzea une erabakigarria izan zen eboluzioan. Gorputz-adarren anatomian eta funtzioan aldaketa garrantzitsuak gertatu ziren sinapsidoetatik terioetara: **sinapsidoak** lehen ugaztunak eta oraindik ugaztun ez ziren arbasoak (ugaztun gisako narrastiak) biltzen dituen taldea dira; **terioak** gaur egungo ugaztun mota bat dira. Bada, orain arte ez zegoen argi jauzi ebolutibo hori noiz eta nola gertatu zen.

Orain, eredu biomekaniko aurreratuetan eta datu fosiletan oinarrituta, ikertzaileek ikusi dute bide hori oso konplexua izan zela.

- Hasteko, gorputz-adarren jarrera posible guztiak aztertu nahi zituztenez, bost espezie modernoren biomekanika ikertu zuten (besteak beste, musker eta galgo bat). Horrela, anatomiak animalia horien jarrerarekin eta mugitzeko moduarekin duen lotura hobeto ulertu ahal izan zuten. Garatu zuten eredu biomekanikoari esker, simulazioak egin ahal izan zituzten, atzeko gorputz-adarrek lurrean zenbateko indarra egin zezaketen kalkulatzeko. Frogatu zuten hankek egin dezaketen indarra erabakigarria dela lokomozioaren eboluziorako.
- Aurrekoaz gain, zortzi espezie fosil aletara zabaldu zuten analisia, 300 milioi urteko eboluzioa kontuan hartuta.

Guztiarekin, ikertzaileek ondorioztatu dute narrastien jarrera etzanetik ugaztun modernoen jarrera tenterako aldaketak gorabehera handiak izan zituela milioika urtetan zehar. Eta, azkenean, egungo ugaztunen jarrera tenteari lotutako ezaugarriek (hezurren forma, giharren indarra, …) aurretik uste baino askoz beranduago eboluzionatu zutela.

Etxebeste Aduriz, Egoitz. Elhuyar Zientzia aldizkarian argitaratutakoaren moldaketa

**1.** **Testuak bi ikerlarik egindako lan bat aipatzen du. Non argitaratu zen ikerketa-lan hau?**

**Science Advances aldizkarian argitaratu zen.**

**2.** **Zein da Harvardeko Unibertsitatearen ikerketa-lanaren helburu zehatza?**

**A.** *Sinapsidoen* eta *terioen* arteko bilakaera.
**B.** Jarrera etzanetik jarrera tentera ugaztunek izan zuten bilakaera.
**C.** Ugaztunen gorputz-adarren bilakaera.
**D.** Ugaztunen mugimenduaren bilakaera.

**3.** **Aukeratu baieztapen zuzena:**

**A.** *Sinapsidoak* gaur egungo ugaztunak dira.
**B.** *Terioak* ugaztun primitiboak dira.
**C.** *Sinapsidoak terioak* baino lehenagokoak dira.
**D.** Narrastiak ugaztunak dira.

**4.** **Ikerketa-lanerako honako hauek erabili ziren …**

**A.** … galgo bat eta musker bat.
**B.** … zortzi espezie moderno eta bost espezie fosil.
**C.** … bost espezie moderno eta zortzi espezie fosil.
**D.** ... narrasti eta ugaztun modernoak.

**5.** **Zer aztertu zuten eredu biomekanikoarekin egindako simulazioekin?**

**A.** Atzeko gorputz-adarrek lurrean egiten ahal duten indarra.
**B.** Aurreko gorputz-adarrek lurrean egiten ahal duten indarra.
**C.** Gorputz-adarretako aldaketak, fosiletatik abiatuta.
**D.** Anatomian gertatzen diren aldaketak, fosiletatik abiatuta.

**6.** **Testuko lehen esaldia hauxe da: <<Ugaztunak narrastien gisara ibiltzetik tente egotera pasatzea trantsizio konplexua eta ez-uniformea izan zen>>. Zer esan nahi du honek?**

**A.** Ez duela denbora-lerro bat jarraitzen.
**B.** Ez zela bilakaera erraza izan.
**C.** Ez zela bilakaera progresiboa eta perfektua izan, baizik eta gorabeheratsua.
**D.** Ez zela bilakaera homogeneoa izan toki guztietan.

**7.** **Esan ezazu Harvardeko Unibertsitatearen ikerketa lan honi buruzko baieztapen hauek gezurra ala egia diren:**

| | E | G |
|---|---|---|
| **A.** Ikerketa-lana fosiletan oinarritu dute soilik. | | X |
| **B.** Ikerketa-lanak balio izan du anatomia eta mugitzeko moduaren arteko lotura hobeto konprenitzeko. | X | |
| **C.** Ikerketa-lanak frogatu du hankek eragiten ahal duten indarra funtsezkoa dela animalien lokomozio-sistemaren bilakaeran. | X | |
| **D.** Ikerketa-lanak frogatu du egungo ugaztunen jarrera tentea uste baino askoz lehenago iritsi zela. | | X |

**8.** **Zergatik esaten dugu testu hau azalpen-testua dela?**

**A.** Ez duela denbora-lerro bat jarraitzen. Ikerketa zientifiko baten emaitzak azaltzen dituelako, eta horretarako, hizkuntza konplexu eta kultua erabiltzen duelako.

**B.** Unibertsitate ospetsu bateko ikerketa zientifiko batek egindako urratsak kontatzen dituelako.

**C.** Ikerketa zientifiko baten emaitzak modu objektiboan azaltzen dituelako, eta horretarako, hizkuntza tekniko eta zehatza erabiltzen duelako.

**D.** Azterketa baten ondorioei buruz konbentzitzen saiatzen delako, eta horretarako, hizkuntza tekniko eta zehatza erabiltzen duelako.

# 2. testua. SENDABELARRAK



INTSUSA

*(Sambucus nigra)*

**INTSUSA/SABUKA/TURTA/LIN TXUSA**

Intsusaren zurtoinak bi azal izaten ditu. Lehenengo azala, kanpokoa, marroia eta gogorra izaten da. Azal hori kenduta bigarren azala agertzen da, fina eta berdea, ukenduak egiteko erabiltzen dena.

Greziar garaian adarrekin Sambuké izeneko musika tresna egiten zuten eta badirudi hemendik heldu dela bere latinezko Sambucus izena.

Intsusa altuera handi bat hartzen duen zuhaixka bat da. Asko nabarmentzen da loretan dagoenean. Bere loresorta zuriek argia ematen dutela dirudi!



**INTSUSA ZERTARAKO ERABILI**

- Bere ezaugarri garrantzitsuenetakoa **larru azaleko arazoei** aurre egitea da: zauriak, erredurak, kolpeak, herpesak, ospela, etab.
- Loreak **arnas bideko arazo** edo gaitz askoren aurrean lagungarri izan daitezke; katarroa, gripea, bronkitisa, etab.
- Izerditzeko, sukarra jaisteko, mukiak botatzeko, etab. ere egokia da.
- **Begiak garbitzeko** ere erabiltzen da, konjuntibitisaren kasuan, adibidez.

**KONTUZ!**

Edozein erabilpen egin aurretik osasun arloko profesional batekin hitz egin behar da eta bere aholkuak jarraitu. Lan honetan ematen den informazioa eta erremedioak ez dira medikuen tratamenduen ordezko.

https://sendabelarrak.haziak.eus/sendabelarrak/intsusa

**“RAKUS”, SENDABELARRA ERABILIZ ZAURI BAT SENDATZEN IKUSI DUTEN LEHEN ORANGUTANA.**



MIGUEL ÁNGEL CRIADO

2024ko maiatzaren 2a

*Fibraurea tinktorioa* Asiako hego-ekialdeko oihanetako landare igokaria da. Tokiko komunitate askok sendabelar gisa erabiltzen dute. Horrekin hainbat gaixotasuni egiten diote aurre, diabetesetik hasi eta malariaraino, digestio-arazoak tarteko. Zientzia modernoak zenbait substantzia aurkitu ditu osagaien artean: furano diterpenoideak, propietate antibakterianoak, antiinflamatorioak, antioxidatzaileak eta fungizidak dituztenak. Bi alkaloideko kontzentrazio handiak ere baditu, bereziki protoberberinakoa, berberinaren jatorria, parafarmazietan eta belar-dendetan erraz aurki daitekeen konposatua (…).

Sumatrako iparraldeko muturrean (Indonesia) lehen aldiz ikusi dute begipean zauri itsusi bat zuen orangutan ar batek *Fibraurea tinktoria* hostodun txaplata bat sortu eta zaurian igurtzi egin zuela. Egun batzuen buruan, ultzera itxi egin zen, eta bi hilabeteren buruan ia ez zen orbainik ikusten.

Ar honek Rakus du izena, Sumatrako orangutana (Pongo abelii), eta espezie horretatik 7.500 baino ez dira geratzen bizirik. 2022ko ekainaren 22ko goizean, ikertzaileek bi arren arteko hots-borroka arraro horietako bat entzun zuten (...). Eguerdian ikusi zuten lehen aldiz lesioa: Rakusek zauri sakona zuen begipean. Borroka ikusi ez bazuten ere, ikertzaileek uste dute goizeko liskarraren emaitza izan zela. Hiru egun geroago, jokabide berria ikusi zuten: Rakus *F. tinctoria* hostoak erauzten ari zen eta, une batez murtxikatu ondoren, irentsi gabe, bere zukua jarri zuen zaurian. Handik gutxira, euliak zauri irekian ari zirenean, berriro murtxikatu zituen hosto berriak, ultzera osoa berdez estali zuen txaplata bat egin arte.

Txaplata eman eta hurrengo egunean, landare bereko zurtoinak eta hostoak jan zituen, baina hurrengo egunetan ez zuen horrelakorik egin (...). Rakus sendatzeko prozesuaren xehetasun guztiak *Scientific Reports* aldizkari zientifikoan argitaratutako lan batean kontatzen dira. (...).

https://elpais.com/ciencia/2024-05-02/rakus-el-primer-orangutan-al-que-han-visto-curarse-una-herida-con-una-planta-medicinal.html

**9.** **Zeri buruz hitz egiten dute bi testuek?**

**Sendabelarrei buruz hitz egiten dute.**

**10.** **Aurkitu *Sambucus nigra-ren* euskarazko izenak.**

**Euskarazko izenak *intsusa*, *sabuka*, *turta* eta *lintxusa* dira.**

**11. Nondik dator *sambucus* izena?**

- **A.** Instrumentu batetik.
- **B.** Adarren sinonimo bat da.
- **C.** Grekeratik.
- **D.** Zuhaixkaren loreetatik.

**12. Aukeratu intsusaz hitz egiten duen web orriari buruzko aukera zuzenena:**

- **A.** Terapia naturalen alde dagoen mediku profesional batek idatzi du.
- **B.** Intsusak antibiotikoa ordezka dezakeela bronkitisean edo konjuntibitisean dio web orriak.
- **C.** Intsusa lasaitasun osoz erabil daitekeela gaixorik egonez gero dio web orriak, naturala delako.
- **D.** Gomendatzen du intsusa erabiltzea erremedio gisa, baina lehenik medikuari kontsultatzea.

**13. *Fibraurea tinktorioa* sendabelarra ...**

- **A.** ... orangutanek bakarrik erabiltzen dute.
- **B.** ... Asiako biztanle-komunitateek erabiltzen dute.
- **C.** ... Asiako biztanle-komunitateek eta animaliaren batek erabiltzen dute.
- **D.** … farmazian aurki dezakezun landare bat da.

**14. Zer dira furano diterpenoideak?**

- **A.** Sendabelar mota bat.
- **B.** Fibraurea tinktoriaren osagaiak.
- **C.** Alkaloide mota bat.
- **D.** Malariari aurre egiten dioten substantziak.

**15. Zer da txaplata bat?**

- **A.** Sendabelar baten zati bat.
- **B.** Sendabelar baten hosto-multzoa.
- **C.** Orri murtxikatuak eta zanpatuak zukua ateratzeko.
- **D.** Larruazalaren gainean jartzeko prestakin natural bat.

**16.** **Testuan aipatzen da parafarmazietan eta belar-dendetan erraz aurki daitekeen konposatu bat. Zein da?**

**Protoberberina da konposatu hori.**

**17.** **Testu batean hiru eten-puntuak - "(...)" - parentesi artean agertzen dira.**

- **A.** Hirugarren pertsona baten hitzak sartzeko indikazio bat da.
- **B.** Irakurtzen ari den pertsonarentzako etenaldia adierazten dute.
- **C.** Jatorrizko testua egokitu egin dela adierazten du: aurreko esaldia aldatu egin da.
- **D.** Jatorrizko testua egokitu egin dela adierazten du: zati bat ezabatu egin da.

**18.** **Adierazi esaldi hauetako zein har daitekeen deskribapentzat:**

- **A.** Egun batzuen buruan, ultzera itxi egin zen, eta bi hilabeteren buruan ia ez zen orbainik ikusten.
- **B.** Intsusaren ukendua erreduretarako, zaurietarako eta larruazaleko arazoetarako erabiltzen da.
- **C.** Intsusak enbor gogorra du. Oso lore txiki eta zuriak ditu, eta guztien artean lore-sorta handi bat osatzen dute.
- **D.** Orain dela gutxi arte, belarrez eta landarez egindako terapia naturala zen, leku askotan, jendearen eskura zegoen sendagai bakarra.

# 3. testua. ABIADURA HANDIKO TRENA (AHT)

## NAFARROA ETA EUSKADIREN ARTEKO LOTURA ETA LANEN EGOERA

**Lotunea egiteko bi aukera dago.** Iruñea Gasteizekin lotzea (V alternatiba deritzona) edo Iruñea Donostiarekin Ezkio-Itsasotik lotzea (H alternatiba deritzona).




Iruñea eta Donostia arteko bidaia 26 minutu laburragoa izango litzateke Ezkio-Itsasotik, Sakanatik baino. Gasteizko bidetik, baina, Iruñea eta Gasteiz arteko bidea laburragoa izango litzateke.

### ZIFRAK

**2.060**

**Ezkio-Itsasoko alternatibarako aurreikusitako kostua.** Gastu guztiak kontuan hartuta, Ezkio-Itsasoko aukerak 2.060 milioi euroko kostua aurreikusi dute txosten informatiboan.

**700**

**Gasteizko aukerarako aurreikusitako prezioa.** Ezkiokoarekin alderatuta, ia herena balioko du Gasteizko alternatibak: 700 milioi euro.

**29,5**

**Ezkio-Itsasoko alternatibaren distantzia tuneletan.** H alternatibak, Ezkio-Itsasokoak, guztira 29,5 kilometro tunel izango ditu, eta tunel zatirik luzeena 21,2 kilometrokoa izango da, Aralar mendikatearen azpian.

**%92**

**Gasteizko alternatibaren ibilbidearen ehunekoa estali gabe.** V alternatiba, Gasteizkoa, ia 75 kilometro luze izango da, eta horietako %92 estali gabe izango dira. Ibilbide osoaren %89 lurretik joango da, %3 zubibideetatik eta gainontzekoa tuneletatik.




**Hiriburuetako sarrerak** (1)

2022ko aurrekontuetan Espainako Gobernuak adostu zuen Gasteizko eta Bilboko AHTaren sarrerako obrak Eusko Jaurlaritzaren esku uztea. Lur azpiko geltokiak egin nahi dituzte bi hiriburuetan. Eraikuntza proiektuak idazten ari dira.

**Bergarako lotunea** (2)

Hiru zati ditu. Hiruretan ari dira obratan. Lehen zatian, lanen herena eginda dago; bigarrenean, obren bi heren; hirugarrenean, obren laurdena. 383 milioi euroko proiektua da, eta gehiena tunel barruan doa. 2021eko apirilean hasi ziren.

**Nafarroako korridorearen eta Euskal Y-aren lotura** (3)

Hurrengo urtera arte atzeratu du azken erabakia Espainako Gobernuak. Hau da, nondik lotuko diren Nafarroatik datozen trenak Euskal Y-arekin. Ezkio-Itsasotik lotzea da aukera bat, eta Gasteiztik egitea bestea. Espainako Gobernuak azken horren aldeko hautua egin du, baina Euskadikoak nahiago du Ezkio-Itsaso izatea, Bergarako lotunean trafikoa arinagoa izan dadin.

Berria egunkarian publikatutako infografia baten moldaketa

**19.** **Nafarroa eta Euskadiren arteko lotura egiteko alternatibetako bat Gasteizkoa da. Zein da aukera horretarako aurreikusitako kostua?**

Aurreikusitako kostua 700 milioi euro da.

**20.** **Bi aukeretako zein joango litzateke Sakanatik?** BALIOGABETUA

**21.** **Nafarroa eta Euskadi abiadura handiko trenarekin lotzeko bi aukerak alderatzen baditugu, honako hau ikusiko dugu:**

- **A.** Bietan kilometro gehiago daude aire zabalean lurpean baino.
- **B.** V alternatiban kilometro gehiago daude lurpean aire zabalean baino.
- **C.** H alternatiban kilometro gehiago daude lurpean aire zabalean baino.
- **D.** V aukera askoz garestiagoa da H aukera baino.

**22.** **Esan baieztapen hauek egia ala gezurra diren:**

| | E | G |
|---|---|---|
| **A.** Ezkio-Itsasoko alternatibaren luzera 29,5 kilometrokoa da. | | X |
| **B.** Frantziako gobernua hamarkada honetan hasiko da obrak | | X |
| **C.** Irun eta Lezo arteko zatia amaituta dago. | | X |
| **D.** Bilboko geltokia lurpean eraikitzea aurreikusi da. | X | |

**23.** **Aukeratu Bergarako lotuneari eta Abiadura Handiko Trenari buruzko esaldirik egokiena, testuaren arabera:**

- **A.** H alternatiba eraikiz gero, Iruñetik Donostiara joateko Bergarako lotunetik igaro beharko da.
- **B.** Bergarako lotunea erabiltzen ari da dagoeneko.
- **C.** Bergarako lotunea V alternatiba baino garestiagoa da.
- **D.** Bergarako lotune ia osoa lurpean geratuko da.

**24.** **Eusko Jaurlaritzak nahiago du Ezkio-Itsasotik igarotzen den aukera Gasteiztik igarotzen dena baino. Zergatik?**

- **A.** Ez delako hain garestia, 700 eta 2030 milioi artekoa.
- **B.** Ezkio-Itsaso Bergaratik gertuago dagoelako Gasteiztik baino.
- **C.** Horrela, Bergarako lotunean ez delako horren trafiko astuna egongo.
- **D.** Errazagoa izango delako etorkizunean trenbidea Iparraldearekin lotzea.

**25. Iruñera iristen diren zatiak …**

**A.** … amaituta daude.

**B.** … obratan daude.

**C.** … tramitazioan daude.

**D.** … 2037rako bukatuta egoeta aurreikusi da.

**26. Zer adierazten dute puntuek bigarren mapan (AHTaren lanen egoera)?**

**A.** Obratan dauden tarteak.

**B.** Zubiak dituzten tarteak.

**C.** Udalerriak.

**E.** Bukatuta dauden tarteak.

**27. Zer dute komunean Castejon-Cadreita (Nafarroan), Legorreta-Tolosa (Gipuzkoan) eta Galdakao-Basauri (Bizkaian) zatiek?**

**A.** Oraindik proiektatu gabe daudela.

**B.** Amaituta daudela.

**C.** Obratan daudela.

**D.** Tramitatuta daudela.

**28. Ondorengo taulan testuan dauden hainbat zifra eta hainbat kontzeptu jaso dira:**

| ZIFRAK |
|---|
| 21,2 |
| 3 |
| 2060 |
| 92 |

| KONTZEPTUAK |
|---|
| **A.** H aukera eraikitzen bada, Iruñetik Donostiara joateko zenbat denbora aurreztuko dugun. |
| **B.** H alternatibarako aurreikusitako kostua. |
| **C.** Proiektatutako tunel luzeenaren luzera kilometrotan. |
| **D.** Gasteizko alternatiban zubietatik joango den ibilbidearen portzentajea. |
| **E.** Gasteizko alternatibaren luzera kilometrotan. |
| **F.** Gazteizko alternatiban estali gabe izango diren kilometroen portzentajea. |

**Idatzi zifra bakoitzari dagokion kontzeptuaren hizkia (bi kontzeptu soberan daude):**

| ZIFRAK | KONTZEPTUAK (hizkia idatzi) |
|---|---|
| 21,2 | **C** |
| 3 | **D** |
| 2060 | **B** |
| 92 | **F** |

# 2. ZATIA- EKOIZPEN IDATZIA

**29. Ekoizpen idatzia.**

Indusketa arkeologiko batean boluntario gisa parte hartzeko izena eman duzu, eta gaur lehendabiziko laneguna izan duzu. Institutuan eskatu dizute web orrian eguneroko bat idazteko. Lehen laneguna amaituta, kanpin-dendara joan zara, eta idazten hasi zara.

Honako puntu hauei buruz idatzi behar duzu:

- Indusketa eremu natural batean egiten ari zarete: inguruan duzun paisaia deskribatu.
- Zer izan da eguneko onena edo txarrena?
- Lehen egunaren ondoren nola sentitzen zaren deskribatu behar duzu: espero zenuen bezalakoa izan al da?

**OHARRA. Lehenengo esaldia emango dizugu: zuk jarraitu.**

Testua sortzeko kontuan hartu beharrekoak:

1. Hasierako planteamendua pentsatzea.
2. Zirriborroa prestatzea.
3. Behin betiko testua idaztea.